

Monasterioak ala komentuak?

Erlijosoen Etxeak izendatzeko hainbat izen ezberdin egon da: Monasterioak izan dira batzuk, Komentuak besteak, baina badago Egoitza, Erretiro-Etxe eta bestelakorik ere. Hala ere, inori ez zaio etorriko gogora Leire-ko "komentuaz" hitz egitea,

edo Zarauzko frantziskotarren "monasterioaz" aritzea.

Zer da, bada, *monasterioa*, eta zer *komentua*? Badago alderik, behintzat: batean monjeak daude, bestean fraideak. Bi mundu eta bi garai ezberdinetakoak dira monasterioak eta komentuak.

Monasterioak: mundu bat, garai bat

Monjeen hazkunde-garaia batez ere IV. mendetik XII. mendera doana da, eta historialariek "monjeen mendeak" deitu dituztenak 548-1156. urte-tartean jar ditzakegu.

Mugimendu horrek bere gurasoak izan zituen: Ekialdean Pakomio (†346) eta Basilio (†378) izan ziren batez ere, eta Europako Mendebaldean, berriz, nahi bada San Agustin (†430) alde batetik, eta bestetik, San Benito Nursia-koa (†548) eta beronen ondoko erreformatzaileak: San Benito Aniano-koa (†821), Bernon (Cluny, 909), Robert Molesme-koa (Cîteaux, 1098) eta San Bernat (†1153).

Monasterioak eraiki eta elkarren arteko lotura juridiko eta espiritualak harilduz osatu zen monjeen mundua, Cluny-n bertan 700 monje izateraino, eta berorren eskuetatik egon ziren 1.200ren bat monasterio elkartzearaino (c. 1100); San Bernat-en zistertarrek, berriz, 1153. urtera-

ko 343 Abadetxe zituzten, eta 1300ean ia 700 monasteriotara iritsi ziren.

Mundu oso bat jaio eta garatzen ari zen, Europako Kristandadea goitik behera berreginez!

Zer zen, ordea, monasterio bat? Leku jakin batean eraikitako etxea eta beronen etxaldeziren (errealitate fisikoa), baina, ezeren aurretik, erlijioso-lagunartea zen monasterioa (bertan finkatutako monje-taldeak osatua), segurtasun juridiko eta ekonomikoak zituena, behar zenean zerbitzari, morroi eta guzti. Sarritan, Erdi Aroko Monasterio handiek lurralde oso bat ere gobernatzen zuten, sistema feudalaren barruan, biztanleen gain botere politikoa ere eskuetan zutela.

Monasterioa bere errealitate fisikoan hartuta, konplexutasun handia izatera iritsi zen, eta arkitekturaren historiak "monasterio eredu" fisiko xehetasunez deskribatu izan du.

Klimaren arabera, monasterioetako eraikinak ez ziren banatzen berdin Ipar Europan eta Mediterraneoan, baina guztietan ere bazeuden ezinbesteko eraikin finko batzuk.

Lehenik eliza, eta laster baita klaustroa ere: bi eraikin horiek gertatuko dira monasterioen bi ezaugarri klasiko; baina lagunartea bereziki rakeskatuta, horiekin batera eta inguruetan beste hainbat egonleku eta eraikin ere jaso zen: klaustro-inguruan zeuden bilera-gelak, logelak, sukaldea, ardandegia eta ostatua, laster Aba-



deak ere izan zuen aparteko bere egoitza. Elizatik ekialderantz hilerria egon zitekeen, eta nekazaritzak, ganaduek eta artaldeek behar zutenaren arabera aparte zeuden ukui luak, biltegiak edo zerbitzarien etxeak.

Monakismoaren mundua zabalaz, lehen-dabizi beren monasterio-etxearen beraren baitan, eta gero bere mendeko monasterio-sarean. Eliza osoaren buru gidari izatera iritsi ziren monje haiek, XI. mendean; hala ere, hurrengo mendean monjeen mundu horrek uste gabeko krisialdia ezagutu zuen (1153...).

Komentuak: beste mundu bat, beste garai bat

Zergatik, ordea, krisi hori? Landa-aldeetako monasterio haien egitura eta zerbitzua ez ziren gertatu egokienak Europan sortu eta gora zetozen hiriei erantzuteko. Nabaria izan zen hiritartze hori Italian, batez ere XII. mendetik aurrera.

Egoera sozial berriari egokituko zaion *fratideen mundua* jaiotzera doa, hasteko behintzat halako monasterio handirik nahi ez duena, biziera ibiltariagoa izango duena, hirietako eliza eta plazetara predikariak bidaliko dituena... Eta XIII. mendean *Eskeko Ordenak* agertuko dira Italian, Frantzia eta Mendebalde osoan: frantziskotar eta domingotarrak, eta era berean karmeldar eta augustindar berriak.

Eskeko fraide hauek ez dituzte lur handiak behar, ezta langile zerbitzaririk ere: anaiartean biziko dira, eskean, lanean eta otoitzean; herri-tarrendantik gertuago bizi nahi dute, herrien ondo-ondoan, errebaletan eta inoiz mendiko bakardadean. Dena den, *komentuek* ez daukate zergatik izan eraikin handiak.

Sortu eta berehala apaltasun eta pobrezian bizi nahi dute. Ez dira izango monjeak, eta *fratres* deituko zaie, fraideak alegia (hau da, 'anaiak'). Egitasmo hau Asisko Frantziskoren asmo eta hizetan ageri da argienik.

Komentuak ez dira sortu eta gobernatuko bakarka, baizik eta lurralde bereko komentuek eta Anaiarteek Kustodia eta Probintzia deituta denen arteko elkartasuna osatuko dute, guztien Nagusi Probintzial bat dutela (frantziskotarrek *Ministro* edo zerbitzari deituko dutena).

Ekonomia apal batekin bizi nahi dute, pertsonalki, noski, baina baita Fraidearte bezala ere, eta inondik ez zerbitzarien bizkar jasotako eta aberastuz doan ekonomia batean. Horregatik, hasierako "etxeak" oso pobreak izango dira, eta nahiago izango dute "lekuetan" (*loca*) bizi, aterpe eta ermitetan, komentu berrietako eraikinetan baino. Hala izan zen San Frantziskorekin (1209-1221), eta berdin gertatu zen frantziskotar kaputxinoen sortze-garaietan ere (1528).

Honela hasiko ziren bizitzen Euskal Herrian ere. Gero, utopia horri historiari traizio "errealista" batzuk ere egingo dizkio, baina hori besterik da, eta joango gara hurrengoetan ikusten.

Gehiago jakiteko

COLOMBÁS, G. M. (2004): *El monacato primitivo*. Madrid: BAC (588).

KNOWLES, D. (1969): *El monacato cristiano*. Madrid: Ediciones Guadarrama.

VARII (1994): *Moines et religieux au Moyen Âge*. Paris : Edition du Seuil.

Galderak eta oharra: 610273580.

Joseba Intxausti